

EMAKUMEAK SALGAI?

Justo Garate zenak Oliver Goldsmith-en *The Vicar Wakefield* (1766) eleberriko elkarrizketa baten zati bat jasotzen zuen bere oharrik erantsiz *Viajeros extranjeros en Vasconia* (1942) liburuaren lehen kapituluari, Britania eta Estatu Batuetako bidaiariak aztertzean, 32-34 orrialdeetan, eleberririk horren pasarte batetik honako hau jaso zuen:

"Baina jauna - erantzun zion Moisesek -, eta nik ez ditut ezagutzen Europan emazte gaientzat bi merkatu baizik: Ranelagh Ingalaterran eta Espainian Hondarribia baizik. Espainiako merkatua urtean behin baizik ez da izaten, baina gure emazte ingelesak edozein gautan lortu genezazke.

"Orduan bere amak esan zuen: "Arrazoi duzu nere seme. Ingalaterra zaharra munduko tokirik egokiena da gizonek emaztea lortzeko".

"Eta bikarioak bere aldetik: "Eta emazteak beren senarrak zaintzeko edo zerbitzatzeko. Herbestean bada esaera zahar bat, Mantxako kanalaren gainetik zubi bat eraikiko balitz kontinenteko dama guztiak etorriko lirake hona eta gurean adibidea hartuko luteke; zeren ez bai da Europan gure emazteekin konparaketa egitekorik".

Kontestu hortatik uler dezakegu Hondarribian emakumeak ezkontzeko salgai jartzen zirela.

Bi ohar labur egiten dizkio Garatek: (40) garren deian, Tamesis ibai ertzean 1803. urtean kendu zuten arte, han egiten ziren jaiak, dantzak, kantuz eta denborarekin askatasun gehiegian erori zirenak; eta (41) garrenean, garai hartan Ingalaterran gauaz ezkontzeko ohitura omen zen Victoria erreginaren garaira arte. Hortik omen "emakume ingelesak gau guzietan daude salgai", geroago isekaz erabili den esaldia.

Garatek urtebete geroago argitaratu eman zuen *Cultura biológica y arte de traducir* (1943) liburuaren 213. orrialdean berriz aipatzen zuen Goldsmith-ek bere eleberrian Wakefield bikarioaren ahoan ipini zuen hura txantxetan hartuz.

Liburu horretan, itzulpenetan maiz egiten diren hutsak zorrozki salatzen ditu Justo Garatek. Adierazten zigun pasarte hortan ere Goldsmith idazleak noizbait zerbait entzun zuenetikako

hutsen bat ote? Hala dirudi. Oraindik gaur egun San Pedro Kalean diren andra saltzaileegatik, adierazteko kontestuan esan daiteke "emakumeak saltzen" (saltzen ari); baina ez beren burua, noski.

Oliver Goldsmith (1730-1774), irlandar jatorrizkoa zen, famili oso apalekoa eta Dublingo Trinity College-n hiru urtez ikasle zelarrik, 1747an unibertsitarien protesta batean partaide zelako bota zuten eta geroztik ahal bezala bizi izan zen buhame gisa, txilubita joaz, titiritero, Europan zehar ibiliz; gero liburu saltzaile eta zetorkionari oratuz kazetaritzan sartu zen Johnson hiztegiagile ezagunari esker. Ondotik poesia, antzerkia eta eleberrigintza landu zituen. Ez zen idazle gorenetakoa, baina bere gaiak eta era entretenigarriak iraun du balio gehiagoko zenbaiten gainetik. Esan dugun bezala, Europan zehar hainbat urtetan ibili zen. Horren lekuko dugu *The Traveller* (Bidailaria), 1764an argitaratua; baina eleberririk aipatuenetakoa du *The Vicar of Wakefield* (Wakerfield-go Bikarioa), 1766an lehen aldiz plazaratua.

Arazoa leuntzeko, hara Justo Garatek kapitulu beraren azkenaldera, 38. orrialdean dakarrena. Hemen ordea Thomas Arnold-i Hondarribiak eragin zion zirrara dugu lekuko. Frantziako Landak eta mugazandiko Euskal Herria igaro ondoren idatzi zuen honako hau: "Hiri atsegina iruditu zitzaidan Irun eguzkitan, eta Hondarribiaz hitz pozgarriak baizik ezin esan, hiri zahar inguruan giro egokia eta paisaia uhartze-zabal irekia da itsasora irteeran, mendi eta itsasoaren artean bilaiarientzat adoreak gelaraztekoa."

Thomas Arnold (1795-1842) irakaslea Matthew Arnold poeta ospetsuaren aita zen. Eta hara hemen dabilenari inoiz gertatzen zaion hutsa: Thomas 1861ean, familiarekin Hondarribira iritsi zela dio, baina zenbaki horietan hutsen bat nabari da, zeren egilea 1842an hila bai zen eta testu hortan dienez Matthew-k hamazortzi urte inguru omen zituen bidaia hortan lagundu zioenean. Horrela izatera, 1840. urtea izango zen, eta ez 1861a.



JUAN SAN MARTIN



**GYADALYPEKO
JATETXEA**

Paella, kazolatxo eta pintxoak

Tel.: 64 46 81
HONDARRIBIA

ERRETEGIA - JANTOKIA

OSTARTE

Santiago Kalea, 73
Telefona: 64 10 38
HONDARRIBIA